

Arratsalde on guziei

Ipar Euskal Herrian ere ez dira eskas proiektu inutilak, suntsitzaileak eta inposatuak.

Batzuk mobilizazioari esker abandonatuak izan dira azken urte hauetan, Getariko Surf-park, Larrun mendiko turismo gunearen haunditzea edo Lapurdiko urre meategia bezalakoak adibidez.

Beste batzuek aldiz, beti mehatxatzen gaituzte. Abiadura handiko linea berria horietako bat da, duela 30 urte asmatua, zentzugabekeria hutsa, Estatutik eta Akitania erregiotik bultzatzen dena, euskal herritar eta hautetsi gehiengo zabalaren kontra.

Baina gaur egun bestelako arazoak ere pairatzen ditugu : lurren artifizializazioa, laborantzarako lurak desagertuz eta lur eta etxebizitzaren gaineko espekulazio azkarra.

Urtero, Lapurdi, Baxe Nafarroa edo Xiberoan, batz bestean, laborantzak 650 hektarea lur galtzen ditu betiko !

Kasu bakoitzak baditu bere berezitasunak, baina gibelean beti ber logika da: lurra bere elikagarri funtzioetik desbideratu, dirua egiteko.

Astero kasik, han hemenka etxe, baserri edo laborantza lurren salmenta espekulatiboen kasuak agertzen dira.

Beharrik alerta piztu da jendartean. Tokiz toki herritarrek adi eta erne egoten dira, salmenta edo artifizializazio proiektuak salatzeke eta oztopatzeko.

Hala nola, duela bi urtez, Arbonako lur batzuk 4 hilabetez okupatu zituzten laborariak eta ehundaka herritarrek, salmenta oztopatu arte.

Geroztik, bildutako esperientziak mutualizatu eta sortutako elkartasun lokarriak indartu dira.

Lurra merkantzia bilakatzearen kontrako borroka funtsezkoa da, bizia bera baita jokoan. Lurra, jendea elikatzeko ondasun komuna da, ura den bezala.

Bainan buru eginen dugu eta indarrak uztartzen ari gara, irabazi arte, lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik atxikitzeke !

Iparaldeko OSTIA sarea
(Okupatzaile Sare Tematsua Irabazi Arte !)

